



PARTEHARTZEAREN HOBEKUNTZA

Manifestazioetan edo elkarretaratzeetan

1. Manifestazioetan irisgarritasuna hobetzeko hasierako atalean bide bat sortu, bertan aniztasun funtzionaleko emakumeek parte hartu dezaten. Bide hori zintekin egin ahal da, pertsonekin eginez gero, bisibilitatea kentzen da eta.
2. Irteera gunean sortzea. Manifestazio jendetsuak daudenean jendea askatasunez eta seguru irteteko manifestazioaren gunetik.
3. Hasierako gunean ikusgarri egoteko aniztasun funtzionaleko emakumeei lekua eman.
4. Pankarta beraien alturan jarri.
5. Elkarretaratzeak egiteko lekuak heltzeko errazak izatea
6. Manifestazioen ibilbidean oztoporik ez egotea kontutan hartu. Hau ezin bada galarazi, alternatibak kontutan hartu.

Parteartzearen hobekuntza dokumentu hau Euskal Herriko Emakume Mundu Martxak plazaratutako erailketen kontrako protokoloaren eztabaiden ostean FEKOOR erakundeko emakumeekin hausnartutako tresna batzuk dira.

Partehartzea ez da aniztasun funtzionala duten emakumeetara mugatzen, baizik eta jendarte guztiarentzako da.

Gainera kontutan izan behar dugu, guztiok garela gure funtzionalitatean anitzak.

Asanblea edo bileretan

1. Denborak errespetatu behar dira. Emakume askok denbora gehiago behar dute hitzegiteko; hizkuntzarengatik, zailtasun batengatik, trebeziagatik... denbora horiek kontutan hartu dinamizatzerakoan.
2. Hizkuntza ez berbala oso garrantzitsua da. Adierazi eskuekin eta hitzegiterakoan begietara begiratu.
3. Diverfeminismo
4. Bilera egiteko leku horretan kontutan hartu irisgarria den guztiontzako.
5. Bilera gunean mahai eta aulkiak modu irisgarrian jarri.
6. Ura edo janaria badago, erraz hartzeko moduan jarri behar da.
7. Dinamikak pentsatzerakoan, kontutan hartu funtzionalitate ezberdineko emakumeak.